

Departamenduaren antolaketaren eragina hizkuntzen ikas-irakaskuntza prozesuan

(Incidence of the Department organization in the process of learning-teaching)

Arano, Rosa M^a
Berazadi, Elena
Txingudi Ikastola
Jaizubia Auzoa, z/g.
20300 Irun

BIBLID [1137-4446 (1997), 9; 65-73]

Saio honetan, Txingudi Ikastolako Hizkuntza Departamenduaren antolamendu erari buruzko xehetasunak adierazi nahi dira, departamenduaren organigrama, partaideen funtzio, bilerak, etabarren berri emango delarik. Departamenduaren antolaketaren deskribapenaren ondoren, antolamendu mota honek hizkuntzen ikas-irakaskuntza prozesuan duen eraginaren nondik-norakoak jorratuko dira.

Giltz-Hitzak: Departamenduaren antolaketa. Organigrama. Eragina hizkuntzen ikas-irakaskuntza prozesuan.

En esta sesión queremos explicar algunos detalles referentes a la organización del Departamento de Euskara de la Ikastola Txingudi; también se informará sobre el organigrama del departamento, sobre las funciones, reuniones, etc. de los participantes. Tras la descripción de la organización del departamento, se tratará sobre los diferentes aspectos de la incidencia que este tipo de organización tiene en el proceso de aprendizaje-enseñanza de lenguas.

Palabras Clave: Organización. Departamento. Organigrama. Incidencia aprendizaje-enseñanza lenguas

Dans cette séance nous voulons expliquer quelques détails en rapport à l'organisation du Département de Basque de l'école "Txingudi"; également, on informera sur l'organigramme du département, sur les fonctions, réunions... des participants. Après la description de l'organisation du département on s'occupera des différents aspects de l'incidente que ce type d'organisation a dans le processus d'apprentissage-enseignement langues.

Mots Clés: Organisation. Département Organigramme. Incidence apprentissage-enseignement.

Hezkuntza Erreformaren berrikuntza eskakizunei aurre egin nahian batetik, eta bestetik, gurea bezalako komunitate elebidunetan Hizkuntzen irakaskuntzak sortzen dituen zailtasunak kontutan izanda, 89/90 ikasturtean, Txingudi Ikastolan erakusten diren hiru hizkuntzen - Euskara, Gaztelera eta Ingelesaren- programazioetan berrikuntza sakon bati ematen zaio hasera, Haur Hezkuntzatik hasi eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara bitarteko mailetan gauzatzeko asmoaz.

Programazio honi buruz aritu izan gara beste zenbait unetan, ahozko hizkuntzaren ebaluaketaz (Arano, Berazadi e Idiazabal, 1994) edo toki honetan bertan izan genuen tartean hiru hizkuntzen irakaskuntza ikuspegi diskurtsibotik nola tratatzen genuen adieraziz (Arano, Berazadi e Idiazabal, 1996).

Gaurko honetan, programazio hori gauzatzeko eta aurrera eramateko erabiltzen dugun antolamenduaren berri ematen ahaleginduko gara. Hasteko, Ikastolari buruzko zenbait datu orokor emango ditugu. Ondoren, departamenduaren antolamenduaren deskribapen formala egin nahi genuke, organigrama, partaideen funtzioak, bilerak, etab adieraziz. Eta bukatzeko antolamendu honek ikas-irakaskuntza prozesuan duen eragina aztertuko dugu. Azterketa hau hiru ardatzen inguruan garatuko da. Alde batetik, eduki aukeraketan duen eragina izango da gogoetagai. Bestetik, erakusteko eran, metodologian duen eragina eta bukatzeko irakaslegoaren hobekuntzan duen zerikustekoa aztertuko da.

DEPARTAMENDUAREN ERAKETA

Departamenduaren antolaketaz hasi baino lehen, antolaketa orokorrarekin zerikusia duten zenbait datu eman nahi genituzke.

Txingudi Ikastola bost lineatako D ereduko ikastetxe publikoa da eta Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzan 924 ikasle ari dira 61 irakasleren ardurapean. Irakasle hauetatik, 43 tutoreak dira, 2 kontsultoreak, 2 Pedagogia terapeutikakoak, 2 Musikako espezialista, 2 Gorputz Hezkuntzako espezialistak, 3 Ingeleseko espezialista eta gainerako 7ak apoioko irakasleak. Apoioko irakasle hauetaik ateratzen dira lan ezberdinetarako giza baliapideak: zuzendaria, ikasketa burua, departamendu buruak, etab.

Txingudi Ikastolako Hizkuntza plangintzaren helburu nagusia ikasleengan euskararen menderakuntza eta erabilera ziurtatzeaz gain, gaztelararen hobekuntza eta Ingeles maila egokia eskuratzeko moduko proposamen didaktikoa asmatu eta gelaratzea da. Horretarako, hizkuntzalaritza, psikolinguistikaren eta ikas-irakaskuntza teoria berrietatik abiatutik, hiru hizkuntzak elkarren osagarri diren programazio bat burutzen ari gara, etapa eta maila bakoitzerako unitate didaktikoak sortuz. Hasi, Haur Hezkuntzatik hasi ginen eta egun Lehen Hezkuntzako, 3. zikloko 2. mailan ari gara.

Plangintza honek suposatzen zuen berrikuntzak, antolaketa aldetik ere bere egokitzeak eskatzen zituen. Ildo honetatik Hizkuntza departamendua sortu zen 89/90 ikasturtean

Departamendu hau Hizkuntza plangintzan zuzenenan esku hartzen duen irakaslegoak eta departamendu buruak osatzen du, bakoitzaren egitegoak eta erantzukizunak ezberdinak direlarik.

Departamendu burua, Zuzendaritza taldeak izendatzen du Ikastolako irakaslegoaren artetik, plangintza gauzatu eta aurrera eramateko, irakastordurik gabe. Honen eginkizunak hauek izango dira:

-Plangintza zehaztea: programazioa nork, nola, zein epetan, nondik abiatuz, Lan honetarako, Ikastolatik kanpoko erakundeen laguntza jasotzen du Derioko Magisteritza Eskolarena batik bat.

-*Unitate didaktikoak gauzatzea*. Euskara, Gaztelera eta Ingelesa lantzeko unitate didaktikoak egiten ditu, bai ikasleentzat materiala eta baita ere material hori gelaratzeko irakasleentzat gida.

-*Unitate didaktikoen gelaratzearen jarraipena egitea*. Unitate didaktiko bakoitza gelaratu ondoren epe jakin batean, hilabete, hilabe t'erdi edo Ingeleserako hiru hilabete, mailako irakaslegoa departamendu buruarekin biltzen da unitate horretako edukien, sekuentzia didaktikoen, materialen, baliapideen egokitasuna aztertzeko eta unitateetan behar diren aldaketak bideratzeko batetik, eta bestetik, ikasleen ahozko nahiz idatzizko produkzioen balorazioa egiteko.

-*Unitate didaktikoetan egin behar diren aldaketak gauzatzearen ardura* gelaratu ondoren eta ebaluaketa saioetan jasotzen den informazioaren arabera.

-*Irakaslegoaren formazioaren ardura*. Unitate didaktikoak gelaratu baino lehen, mailako irakaslegoak hizkuntzari eta hizkuntzen ikas-irakaskuntzari buruzko hausnarketa egiten du saio trinkoen bidez, gelaratu behar dituzten unitateak zein hizkuntz kontzepzioetatik abiatuz eta zein printzipio psikopedagogikotan oinarrituz eginak diren aztertu asmoz, unitateak eginak izan diren zentzu berean gelaratuak izan daitezten. Saio hauen egitaraua, ematea eta ebaluaketa departamendu buruaren esku dira.

Irakaslegoaren formazioa arestian aipatu izan diren ebaluaketa saioetako hausnarketaz osatzen da.

- *Hizkuntza arloari dagokion Ikastetxeko Curriculum Proiektuaren idazketaren eta irakasle-goaz lantzearen ardura*. Curriculum Proiektuan hartu izan diren erabakiak irakaslegoarekin kontsentsuatu, praktikan jartzen direla ziurtatu eta ikasturtez ikasturte sortzen diren aldaketak jasotzea dira beste eginkizunetatik batzuk.

- Erakunde ezberdinek kaleratzen dituzten deialdietara gure egitasmoa aurkeztu, ezagutarazteko asmoz, diru laguntzak lortzeko, etab.

Maila ezberdinetako irakaslegoaren eginkizuna hizkuntza arloari dagokionez, formazio saioetan parte hartzea, unitateak gelaratzeko eta gelaratu ondoren gelaratzearen joan-etorriei buruzko informazio bilketa egitea da.

Mailako arduraduna, unitateak bi ikasturtetan baino gehiagotan gelaratuak izan direnean eta mailako irakaslego bera denean, ordezkakatarik edo aldaketarik ez denean egon, alegia, mailako arduraduna izaten da unitate bakoitzaren bukaerako ebaluaketa saioa zuzenduko duena, hiruhilabetero biltzen delarik departamendu buruarekin unitateetan izan diren aldaketan eta gorabeheren berri emateko. Eginkizun honez gain, arduradun honek ziurtatzen du unitateak gelaratzeko beharrezko izan daitezkeen baliapideak gela guztietan izatea, ebaluaketa bileretarako egutegia oroitari edo taldean ager daitezkeen edozein beharrian, zalantza, etab. konpontzeko bideak urratzea.

HIZKUNTZA DEPARTAMENDUAREN HARREMANA IKASTETXEKO BESTE ESTAMENTUEKIN


Departamendu buruak bere lanaren gorabeherak eta plangintzaren nondik-norakoen berri zuzendaritza taldeari hiruhilabetetik behin ematen dio, honek era berean Pedagogi taldean eta Goi Batzordean eman dezan. Erabakiak hartzea eskatzen duen gertakizun bat ematen bada zuzendaritzaritza taldera hiruhilabeteroko bilera hoiek baino lehen jotzen da, konponbideak zenbait lehenen aurkitzeko.

Honez gain, ikasturte bukaeran memoria bat idazten da, egindako lanaren .deskribapena, balorazioa eta hurrengo ikasturtean lana nondik-nora joan daiteken adieraziz. Era honetara, klaustro guztiak departamenduan egindako lanaren berri zehatza izaten du eta zuzendaritza taldeak hurrengo ikasturterako planak egin ditzake.

Badira ikastolan beste departamentu batzuk: Matematikakoa, Inguruneakoa, Gorputz Hezkuntzakoa eta Musikakoa hain zuzen ere. Departamendu hauen egitekoak Hizkuntzakoarenak baino murriztagoak diren arren (material propioa sortzerik ez da planteatzen) duten egitura-keta berdin samarra da eta zenbait eginkizun ere.

Zentzu honetan, departamendu buruek harreman estuak dituzte zenbait eginkizunetan jokabide berdintsuak bideratzeko, hala nola, mailako irakaslearen formazioa estrategiak bilatu orduan, Curriculum proiektua idaztean, irizpide metodologikoak ezartzean, etab.

Hona hemen, ikastolaren organigrama:



ANTOLAMENDU HONEN ERAGINA

Antolamendu mota guztiak bezelaxe, honek ere badu bere eragina ikas-irakaskuntza prozesuan. Arestian adierazi bezala, hiru ardatzen inguruan izango dira gure gogoetak: eduki aukeraketa mailan, metodologiaren inguruan eta irakaslegoaren formazioan.

EDUKI AUKERAKETA

Ikastetxe gehientsuenetako iharduera eduki hautaketa egiterakoan honako hau izan da:

Mailako edo zikloko irakasle taldea biltzen da (gutxitan etapako irakasleagoa eta gutxiagotan etapa ezberdinetakoa) eta testu liburuak aukeratzeko du (kasu honetan liburuak markatzen ditulanduko diren edukiak) edo haien ustetan, egokiena den eduki zerrenda egiten dute. Hautaketa egiteko irizpideak ere beti ez dira izan hizkuntz jakintzari, erabilerari edo gaitasun komunikatiboaren eskuraketari dagozkionak, azaleraokoak baino, hala nola, aurkezten diren ariketak ikasleentzako duten erakargarritasuna, irudien eta materialaren aurkezpenaren erakargarritasuna, tradizionalki garrantzitsutzat jo izan diren edukiak sartzeara (deskribapen literarioa, narrazioa, aditz paradigmatikak, deklinabidea...).

Egoera hau, ulergarria da arlo guztietan espezialista izaterik ez baitago.

Gauzak honela, gehientsuenok bizi izan dugu irakasle izan garelarik edo/eta ikasle izan garelara, mailaz maila eduki berdinak aztertzearena, ezagumendu mailan inolako ekarpenik gabe. Adibide bat jartzearen gorputzaren interesguneari dagokion hitz zerrenda bera lantzen izan da 3 urte, 4 edo 5 urterekin Haur Hezkuntzan askotan, Arazoa areagotu egiten izan da ziklo edo etapa aldatzetan haurra irakasle ezberdinarekin jartzean. 3. eta 4. mailan pertsonen deskribapena landu izan dute eta 5. mailan bera landuko dute tratamendu berdinarekin.¹

Bestalde, ikastetxean erakusten diren hizkuntza ezberdinen eduki aukeraketa inongo loturarik gabe egin izan da. Euskaraz eduki batzuk lantzen izan dira, gazteleraz beste batzuk eta Ingelesez beste batzuk.

Hizkuntzen jakintza alorrean egin izan diren eta egiten ari diren ikerketek argi eta garbi uzten dute, bigarren eta hirugarren hizkuntzak ez direla hutsetik abiatu ikasten. Bigarren edo hirugarren hizkuntzaz hasten denean ikasleak badu hizkuntz esperientzia bat, bere ama hizkuntzan eta horrek hizkuntza berri hori ikasten hasterakoan lagundu egingo dio. Ama hizkuntza ikasleek kontziente edo inkontzienteki bigarren edo hirugarren hizkuntzaren inportantzia jasotako elementuak barneratzeko eta bere ekoizpenean laguntzeko erabiliko duen ezagueratuturri da. Hau horrela bada, hizkuntz edukiak aukeratu orduan hiru hizkuntzak kontutan hartu beharko dira eta elkarren osagarri den eduki aukeraketa planteatu.

¹ Honekin ez dugu esan nahi testu mota bera ezin landu daitekeenik maila ezberdinetan. Are gehiago, testu mota bera maila ezberdinetan lantzearen aldeko gara, baina beti ere testu mota horretako edukiak ikuspuntu ezberdinetan tratatuak direnean. Narrazioa Haur Hezkuntzatik hasi eta DBH mailetaraino landu daitezke (beste diskurtso mota batzuekin batera). Aldatuko dena mailaz-maila testu generoa izango da (ipuina, leienda, fabula, kontakizun historikoa, etb.) eta ikuspegi testuala (aditz denboren erabilera, antolatzaileen erabilera anaforikoak,...). Zentzu honetan guztiz bat gatoz, A. Pasquier eta J. Dolz-en (1996) "espiral erako" eduki mailakatzeko kontzeptuak.

Gurea bezalako antolaketak, aipatu ditugun eduki aukeraketaren arlo hauetan badu eragina. Alde batetik, irakasle bat disziplina jakin bati buruzko ikas-irakaskuntzaz arduratzean, nolabait espezializatu egiten da. Zentzu honetan, edukiak hautatzeko orduan, kanpoko faktoreak baino, arloari bereziki dagozkion irizpideak erabiltzea errezago suertatuko zaio edukiak egituraketa logikoari, hauen jabeakuntzari buruzko eta ikas-irakaskuntza prozesuari buruzko informazio gehiago eskuratzeko aukera izango baitu.

Mailaz mailako eduki aukeraketari dagokionez, Departamendu buruak egiten du etapaz-etapako eta mailaz-mailako eduki aukeraketaren lehen proposamena, gero mailako irakasle-goak gelaratu ondoren eta eduki horren aurrean haurrek nola erantzun duten ikusiz, behar diren aldaketa eta egokitzapenak gauzatu, etapa eta maila ezberdientan. Era honetara, edukiak alperreko errepikapenak ekidin eta mailaz-mailako eta etaparik etapako eduki aukeraketa koherentea eskeintzea ahalbideratzen du

Bestalde, hiru hizkuntzetarako osagarri gerta daitekeen eduki hautaketa egiteko aukera eskeintzen digu. Eskolako erabilerak batik bat euskaratik bultzatzen dira, hau baita gurean ikasketa hizkuntza. Ahozko hizkuntzan, euskaraz, gaztelerako interferentziak zuzentzeko edukiak lantzen dira. Gazteleraz erabilera formalak proposatzen dira batik bat, erabilera kolokialak kaleak ziurtatzen baititu. Ingeleseko edukiak hautatzeko ahoz nahiz idatziz, maila ezberdinetan euskaraz eta gazteleraz landu dena kontutan hartzen da testu eta erabilera berdintsuak proposatuz. Honela, haurrak hizkuntza bakoitzean dituen erabilera beharrikanak aintzat hartzen eta lantzen dira, batetik, eta bestetik, hizkuntza batean landu dena beste hizkuntzaren lanketarako tresna baliogarri gertatzen da, bai edukiak barneratu orduan eta bai denbora aurreztatu orduan².

METODOLOGIA

Guztontzat da ezagun edukiak hautatzea bezain garrantzitsua dela eduki hоек erakusteko era zehaztea eta mailaz maila hori mantentzea, adinari dagozkion egokitzeak gauzatu. Edozein disziplinaren metodologia erabakitzean ikusteko handia du ikaskuntza pozesua nola ulertzen den, delako ikuspegi bat edo beste nagusitu metodologian eragina baitu.

Askotan gertatu izan zaigu irakasleoi ikaskuntzan eragina duten barne faktoreez (subjektuak ezagumendua eraikitzeke ematen dituen urratsak) kontziente ez garela izan eta zentzu horretan ikas-irakaskuntza iharduerak hauek kontutan izan gabe bideratzea. Ildo honetatik, metodologiari buruzko gure hausnarketak askotan ariketa eta ekintza ezberdinen hautaketa, gelaren antolamendua, irakaslearen egitekoa, edo baliapide bat edo besteren egokitasuna, etab. zuten muintzat, beti ere ikasleen motibazioa suspertzea zutelarik helburu. Hainbat urteetan, ikasleak gustora egiteko moduko ekintzak asmatzea izan da irakaslearen kezka, askotan, tartean zer erakusten gabiltzan ere ahantzi izan zaigularik.

Hizkuntzen irakaskuntzan bestalde, tradizionaliki, ama hizkuntza, bigarren hizkuntza edo hirugarren hizkuntza izan, metodologia ezberdina erabiltzeko joera nagusitu izan da. Gaur

² Adibidez, euskaraz Lehen Hezkuntzako 2. mailan urtebetetzea ospatzeko gonbidapen eskutitza landu da. Ingelesez 6. mailan eskutitz mota bera landuko dute. Komunikazio egoera bera da bietan. Ingeleseko irakasleak beraz, planifikazioaren atala, esaterako, bereziki landu beharrik ez du izango, euskaraz egin zutena oroitaztea aski izango baita. Ingeleseko irakaslearen lana euskaraz badakizkiten esapide hоек ingelesez nola diren erakustea izango da.

egungo ikerketek hizkuntzen jabekuntza prozesua berdin samarra dela baieztatzen dute ama hizkuntzan, bigarren edo hirugarren hizkuntzan. Gainera, edozein hizkuntzatan komunikazio egoera berdinetan, diskurtso-genero eta testu egitura berdintsuak ematen direla ziurtatzen dute (Adam 1990), hizkuntza batetik bestera sistema fonetiko-fonologikoa, morfologikoa sintaktikoa eta semantikoa izango da aldatzen dena. Are gehiago, ama hizkuntzan izandako esperientzia, gainerako beste hizkuntzak ikasteko lagungarri gertatzen direlako ustea nagusitzen ari da (Cummins, 1979).

Zentzu honetan, bada ama hizkuntza eta gainerako beste hizkuntzak era koordinatu batean erakutsi behar direla aldarrikatzen duen ikertzailerik (Roulet, 1980).

Gauzak honela, gurean konstruktibismoaren haritik, ikaste esanguratsuaren printzipioak oinarritzat harturik gauzatu ditugu eduki mota ezberdinak lantzeko sekuentzia didaktikoak, (Arano, Berazadi, Idiazabal, 1996) eta mailaz-maila berdintsuak dira, adina dela eta, sartzen diren aldaketa apurrak salbu.

Arestian aipatu duguna kontutan izanda, bestalde, hiru hizkuntzetan metodologia bere-tsua erabiltzen dugu, eta gure ustez, badu ikas-irakaskuntza prozesuarentzat bere onura. Zenbait ohitura garatzeko denbora eta abadagune gehiago izatea ahalbideratzen du (bakoitzak bere produkzio idatzien behaketa eta zuzenketa egiteko ohitura garatzea, adibidez). Eduki bera lantzeko sekuentzia didaktikoak eta ariketa motak berdintsuak dira hiru hizkuntzetan, ikasleentzat oso ezagun gertatzen direnez denbora aurreztatzen da ariketen egiteko eraren azalpenetan.

Metodologia amankomun honen erabilera erreala bermatzeko, gure ustez, ezinbesteko da irakaslearen formazioa, irakasleak izango baitira metodologia horren nondik-norakoak ulertuz gelan praktikan jarri beharko dutenak. Hau lortzeko, geroago ikusiko denez, antolamendu era, oso aldagai garrantzitsua da.

IRAKASLEGOAREN FORMAIZIOA

Bi eratarata bideratzen da: Ikastaro trinkoen bidez eta unitateak gelaratu ondorengo ebaluaketa saioak direla medio. Hizkuntz departamenduko irakasleak unitateak gelaritzen hasi baino lehen, ekainean edo irailean, ikastaro bat ematen die mailako edo zikloko irakasleei, unitateetan nagusitzen den hizkuntz kontzepzioa eta erabilitako printzipio psiko-pedagogikoak aztertuz. Hemendik aurrera, unitate bakoitzaren gelaraketaren bukaeran, unitate horri eta haurren jabekuntzari buruz egiten diren ebaluaketa saioetan osatzen da irakaslearen formazioa.

Lehenago adierazi bezala, unitate bakoitzaren bukaeran mailako irakasle taldea departamenduko irakaslearekin biltzen da unitateen egokitasunaren azterketa eta haurren ekoizpenei buruzko balorazioa egiteko. Horretarako, irakasle bakoitzak eduki aukeraketa, mailakatze, sekuentzia didaktiko, ariketa, denbora eta baliapideei buruzko informazioa biltzen du eta erregistro batean jaso, gero ebaluaketa saioan hauen balorazioa egin eta behar diren erabakiak hartzeko (edukiak aldatu edo mantendu, sekuentzia didaktikoa aldatu edo mantendu, ariketa berriak sartu,...).

Honez gain, haurren ahozko eta idatzizko ekoizpenei buruzko informazioa ere jasotzen da. Unitate didaktiko bakoitzean informazioa biltzeko behaketa egoerak jarriak daude, eta in-

formazioa horretarako gertatuak diren erregistro batzuen bidez jasotzen da. Erregistro haue-
tan, indikadore batzuk jarri dira, unitate didaktikoetan lantzen diren edukien arabera multzoka-
tuak testu dialogal, monologal, hiztegi, ahozkerak, planifikazio eta morfosintasiari buruzkoak.
Unitate jakin batean lantzen den testuaren ezaugarrien arabera, sail bakoitzeko indikadoreak
aldatuz doaz noski.

Behaketa egoerak definituak izateak, haurren produkzioak item batzuren arabera aztertu
beharrak, mailako haurren hizkuntzaren ezaugarriak, hizkuntza mota ezberdinen ezaugarriak
eta bigarren hizkuntzaren eskuraketak maila hauetako ikasleei planteatzen dizkien haurren
arazoei buruzko hausnarketa egitera bultzatzen du irakaslegoa. Zentzu honetan, haien esane-
tan, edozein ohiko ikastarok baino hizkuntz errealtateari eta hizkuntzaren funtzionamenduari-
buruzko informazio gehiago ematen dio irakaslegoari.

Haurren emaitzak, bestalde, ikas-irakaskuntza prozesuko beste osagai batzuekin harre-
manetan jarriaz aztertzen dira: eduki, sekuentzia didaktiko, baliapide, etabarrekin alegia. Al-
de honetatik, hizkuntzaren funtzionamenduari buruzko ezagutza ez ezik, hizkuntzaren
irakaskuntzari buruzko formakuntza eskuratzeko aukera eskeintzen du, ikas-irakaskuntza pro-
zesua bera aztertzen baita.

Egiteko era honek, beraz, gure ustez, irakaslegoaren formazioan eragin zuzena du.

Formazioan ez ezik, irakaslego taldearen kohesioa lortzen laguntzen du, lantaldea sor-
tzen da. Irakaskuntzan askotan, irakasle bakoitza bere gelan, bere aldetik bakarka lan egiteko
ohitura garatu izan da. Egungo Erreformen argi gelditzen da irakas-ekipoaren beharra eta ira-
kas-ekipo honek hartu beharreko erabakiak eta lortu beharreko akordioak zeintzuk diren Ikas-
tetxeko Curriculum Proiektua lantzeko orientabideetan (OCD, Lehen Hezkuntza I, 1992). Gure
antolakuntza motak, departamendu burua izanik eta ebaluaketa saioen bidez egiten den ja-
rripena dela bidez, erabakiak hartzeaz gain, erabaki hoiak gelaratuak izatea ziurtatzen du.

ONDORIOAK

Aipatu dugun antolaketa mota hau ez da berria, Departamendu buruak eta mailako ardu-
radunak izan izaten dira, Gure ustez berrikuntza eta arrakasta bakoitzari ezartzen zaizkion
eginkizunetan eta egiteko eretan aurki daitezke. Gutxitan jarri izan dute helburutzat ikastetxe-
ek hiru hizkuntzen irakaskuntzarako material propioa sortzea eta gutxiagotan egin izan da
material horren gelaratzearan jarraipen sistematikoa hainbat aldiz errepikatu ditugun ebalua-
keta saioen bidez. Gure egiteko eraren ekarpenik nagusia, ebaluaketa saio hauek direlako-
an gaude, besteak beste, bi arrazoi nagusi hauengatik hain zuzen ere:

Irakaslearen formazioa bideratzeko eskeintzen duen aukerarengatik, haien eguneroko
praktikatik abiatuak, gelan sortzen zaizkien kezka eta zalantzak argituz, hizkuntz errealtate-
aren eta hizkuntzaren didaktikari buruzko hausnarketa eginaz. Aipatu behar da baita ere, saio
hauen bidez jasotzen den formazioa beste disziplinen ikas-irakaskuntzarako ere onuragarri
suertatzen dela irakaslea didaktika orokorreko zenbait kontzeptu orokorrez jabetzen baita:
eduki hautaketaren beharra eta horretarako irizpideak finkatzearen garrantzia, sekuentzia di-
daktiko eta ariketaren arteko bereizketa, ikaste esanguratsuen printzipio orokorrak, etab...

Eduki hautaketa mailan, irizpide metodologiko zein ebaluaketa prozedura, irizpide eta
tekniken inguruan hartzen diren erabakiak talde osoak gelaritzen dituela ziurtatzen delako,
benetako lan-taldea sortuz.

Departamenduaren antolaketa eragina hizkuntzen ikas-irakaskuntza prozesuan.

Azpimarratzekoa da baita ere, egiteko era hau edozein ikastetxetan martxan jar daitekeela. Beti ere, departamendu burua irakastordurik gabe edo irakastordu gutxirekin aritzen baldin bada, hizkuntzen irakaskuntza alorrean espezializazio piska bat baldin badu eta lan-taldeak sortzeko gaitasuna.

ERREFERENTZIAK

- ADAM J.M (1990) Elements de linguistique textuell. Théorie et pratique de linguistique textuelle. Liège, Mardaga.
- ARANO, R.M., BERAZADI, E. e IDIAZABAL, I (1994) Una experiencia de didáctica y evaluación de discurso oral en primer ciclo de primaria CL&E, 23, 69-79 or.
- ARANO, R.M., BERAZADI, E. e IDIAZABAL, I. (1996) Planteamiento discursivo e integrador de un proyecto de educación trilingüe. En M.Pujol y F.Sierra, Las lenguas en la Europa comunitaria, vol II. Amsterdam: editions Rodopoi, 65-88 or. 1994an "Hezkuntza eleaniztunari buruzko II nazioarteko ihardunaldietan" aurkeztutako komunikazioa.
- CUMMINS, J. (1979) Interdependencia lingüística y desarrollo educativo de los niños. Infancia y aprendizaje 1983, 21, 37-61 or.
- DEPARTAMENTO DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION-HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA (1992) Euskal Autonomi elkarte oinarriko curriculum-diseinua. Eusko Jaur-laritzaren argitalpen zerbitzu nagusia.
- PASQUIER, A. y DOLZ, J. (1996) Un decálogo para enseñar a escribir. Cultura y Educación, 2, 31-41 or.